

OÑATIKO UDALA

«Oñatin, hileta edo omenaldi zibilak egiteko Ordenantza».

Udal Plenoak 2012ko uztailaren 26an egindako bilkuran, hasiera baten onartu zuen «Gune Publikoan Hileta Ospakizunak Arautzeko Ordenantza».

Kontuan izanik, Ordenantza hori jendaurrean jarri den epean ez dela ez alegazio ez iradokizunik aurkeztu, Toki Araubidearen Oinarri-Arauk arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluko azkeneko paragrafoak ezarritakoaren arabera, Ordenantza behin-betikoz onartutzat jotzea erabaki du Udal Plenoak 2012ko irailaren 27ko bileran.

Adierazten da, Ordenantza honen aurka, Administrazio Auzigaietako Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzigaietako Aretoan, bi hileko epean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Toki Araubidearen Oinarri-Arauk arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetara, aipatu Ordenantzaren testu osoa ematen da argitara.

Oñati, 2012ko irailaren 28a.—Alkatea. (9089)

«OÑATIN, HILETA EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA»

ATARIKOA

Estatu ez-konfesional edo laiko batean, gauza jakina da gizartean erakundeek bermatu behar dituztela pertsonen eta elkarteen askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna, eta horretarako muga bakarra da legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra.

Hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala sortu da erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

Gure gizartean edo herrian bertan elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia-ekitaldiak egiteko toki edo tenpluak dituzten bezala, Oñatiko Udalak gizartean gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun behar dio.

I KAPITULUA. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea Oñatiko udalerrian hildakoei hileta ospakizun zibilak egiteko udal lokalen edo gune publiko baimena eta erabileraren baldintzak arautzea da.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

Aprobación definitiva de la la «Ordenanza para la celebración de despedidas u homenajes civiles por fallecimiento en Oñati».

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 26 de julio de 2012 aprobó inicialmente la «Ordenanza Reguladora de Actos Funerarios en Espacio Público».

Habida cuenta de que durante el período de exposición pública de la citada Ordenanza no ha sido presentada ninguna reclamación ni sugerencia, en virtud de lo establecido en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 27 de setiembre de 2012ko acordó aprobar con carácter definitivo la Ordenanza.

Contra la presente Ordenanza, se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

En virtud y a los efectos de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la citada Ordenanza.

Oñati, a 28 de setiembre de 2012.—El Alcalde. (9089)

ORDENANZA PARA LA CELEBRACIÓN DE DESPEDIDAS U HOMENAJES CIVILES POR FALLECIMIENTO EN OÑATI

PREÁMBULO

En un Estado aconfesional y laico, las instituciones deben garantizar la libertad, ideológica, religiosa, y de culto de las personas sin más limitación que la necesaria para mantener el orden público de acuerdo con la ley.

La realización de funerales u homenajes civiles por fallecimiento nace de la necesidad social de ofrecer una ceremonia digna y personal a aquellas ciudadanas y ciudadanos que han escogido vivir sin la religión, de conformidad a cómo la persona difunta concebía la vida.

Así como las distintas religiones que conviven en nuestra sociedad y en nuestro propio pueblo tienen lugares o templos donde realizar sus actos litúrgicos de despedida a sus difuntos, el Ayuntamiento de Oñati tiene la obligación de dar respuesta a esta necesidad social.

CAPÍTULO I. OBJETO

Artículo 1.º Objeto.

La presente Ordenanza tiene por objeto regular la autorización y condiciones de uso de locales municipales o espacios públicos para la realización de funerales u homenajes civiles por fallecimiento en Oñati.

II. KAPITULUA. ANTOLAKETA

2. artikulua. *Lekuak.*

Orokortasunez eta Oñatiko udalerrian leku hauetan egingo dituzte ospakizunok:

- Gune itxiak:
- Santa Ana antzokia (280 aforoa).
- Santa Anan kristalez itxitako gunea.
- Gune publikoak:
- Santa Anako lorategia.
- Holerriaren aurrealdeko parkea.

3. artikulua. *Egunak eta orduak.*

Hileta zerbitzuak egunero egin daitezke, domeketan eta jaiegunetan izan ezik.

Hiletak egiteko ordutegia: 9:00-14:00 eta 17:00 – 20:00. Zapatuetan hiletak 12:00 – 14:00 ordutegian ere egin ahal izango dira.

Gune itxietan beste ekintzaren bat balego, aukeratu beharko dute proposatutako gune publikoetako bat.

4. artikulua. *Kostua.*

Indarrean dauden Zerga Ordenantzak aplikatuko dira.

5. artikulua. *Material laguntzailea eta giza baliabideak.*

Ekitaldiaren ospakizunak udal langileen laguntza izango du. Hileta ekitaldiak irauten duen bitartean Udaltzaingoa kanpoaldean egongo da, ekitaldia bidezko moduan gauzatuko dela bermatzeko.

Udalak eskatzaileen eskura jarriko dituenak: Megafonia (luzagarriekin), hilkutxari eusteko elementu bat eta aulkiak.

Gune itxietan ospatzen diren hileta zibiletan gomendatzen da hilotza aurrean ez izatea.

III KAPITULUA. BAIMENA

6. artikulua. *Baimena.*

Udalak eskaintzen duen zerbitzu hau erabiltzeko, Udalak hartarako duen eskabide eredua (I. eranskina) bete behar dute eta Oñatiko Udalaren Bulego Orokorretan aurkeztu, ospakizuna egin nahi duten egunean goizeko 11:00ak baino lehen.

Edozein arrazoiengatik Udalak irizten badu ez dagoela erabiltzerik hileta ospakizuna egiteko leku bat, Udala harremanetan jarriko da eskaera egin duenarekin, egoeraren berri emateko eta beste irtenbide bat adosteko.

Baldin eta Udalak, zerbitzua emateko jarritako ohiko baliabideekin (personak eta materialak), ezin badie aurre egin aurkeztutako eskabide guztiei, kontuan hartuko da horien aurkeztu pen ordena.

IV. KAPITULUA. HASIERA

7. artikulua.

Alkateak edo berak izendatutako zinegotziak emango du baimena, 2 artikuluan finkatutako lokalak eta espazioak erabiltzeko, aldeaz aurretik Oñatiko Udaletxeko Erregistroan eskaera aurkeztuta.

CAPITULO II. ORGANIZACIÓN

Artículo 2.º Lugares.

Con carácter general y dentro del municipio de Oñati estas celebraciones se realizarán:

- Espacios cerrados:
- Santa Ana antzokia (aforo de 280).
- Recinto acristalado de Santa Ana.
- Espacios públicos:
- Jardín de Santa Ana.
- Parque frente al Cementario.

Artículo 3.º Días y horarios.

Los funerales se celebrarán todos los días, salvo domingos y festivos.

El horario para la celebración de los funerales será de 9:00 a 14:00 horas y de 17:00 a 20:00 horas. Los sábados podrán celebrarse los funerales entre las 12:00 y las 14:00.

En el supuesto de que en los espacios cerrados propuestos se celebre otro evento se tendrá que optar por alguno de los espacios abiertos.

Artículo 4.º Costo.

Se aplicaran las Ordenanzas fiscales vigentes.

Artículo 5.º Material auxiliar y humano.

La celebración del acto contará con la colaboración de personal municipal. La Policía Municipal permanecerá en el exterior para garantizar el normal desarrollo del mismo.

El material auxiliar que el Ayuntamiento pondrá a disposición de los solicitantes será el de equipo de megafonía (con alargador), un elemento para soporte del féretro y sillas.

En los espacios cerrados se recomienda no celebrar funerales civiles con cuerpo presente.

CAPITULO III. AUTORIZACIÓN

Artículo 6.º Autorización.

Para la utilización del presente servicio será necesario formalizar el modelo de instancia (anexo I) al efecto previsto por el Ayuntamiento y presentarlo en la Oficina General del Ayuntamiento antes de las 11:00 horas del día en el que se quiera celebrar el acto.

En caso de que por cualquier causa el Ayuntamiento considere que no se puede autorizar el uso del espacio para el acto funerario, el Ayuntamiento se pondrá en contacto con el peticionario a fin de comunicarle la situación, e intentar buscar una alternativa.

En caso de que el Ayuntamiento con los medios (personales y materiales) ordinarios asignados a este servicio, no pueda hacer frente a todas las solicitudes presentadas, se tendrá en cuenta el orden de presentación de las mismas.

CAPITULO IV. INICIACION DEL PROCEDIMIENTO

Artículo 7.º

Será el Alcalde o Concejales en quien delegue quien podrá autorizar el uso de los locales y espacios fijados en el artículo 2, previa presentación de la solicitud en el registro municipal del Ayuntamiento de Oñati.

8. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak Oñatiko Udaleko Alkatetzara zuzendu behar dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako moduren batean.

9. artikulua.

Hiletak edo omenaldiak egiteko eskaeren tramitazioa zirkunstantziek eskatzen duten arintasun printzipioen arabera egingo da eta eskumena duen pertsonarengana helaraziko dira hark erabakia hartzeko.

10. artikulua.

Eskaerak honako datu hauek eduki behar dituzte:

— Ekitaldia ospatzeko baimena eskatzen duen pertsonaren izen-deiturak, helbidea eta identifikazioa.

— Hildako pertsonaren izen-deiturak.

— Heriotza ziurtagiria.

— Hileta zibila egiteko lehentasunezko eguna eta ordua. Udalak ahal duen neurrian aintzakotzat hartuko ditu eskatutako data eta ordua, beti ere eskaeren aurkezpen ordenari jarraituz. Aipatu ordena aldatu ahal izango da zirkunstantzia edo kasu berezietan, beti ere behar bezala arrazoituta.

— Ekitaldiaren gutxi gorabeherako iraupena.

— Eskaera lekua eta data.

— Eskatzailearen sinadura eta/edo bere borondatearen benetakotasunaren egiaztapena edozein baliabidez.

— Ekitaldiaren azalpen laburra eta erabiliko den materialarena (mahaiak, aukiak, megafonia).

11. artikulua.

Eskaerak ez baditu betetzen aurreko artikuluan ezarritako baldintzak, interesatuari errekerituko zaio ahalik eta lasterren, ekitaldia baino lehen edo ondoren, konpontzeko egindako hutsegitea edo aurkezteko aginduzko dokumentuak.

II. KAPITULUA. INSTRUKZIOA

12. artikulua.

Hileta zibilaren ekitaldi eguna eta ordua alkateak edo berak ahalmentutako zinegotziak finkatuko ditu, hartarako irekitako espediente aurretik dela.

Instrukzioa eskaeren aurkezte ordenari jarraituz egingo da eta eskatzaileek emandako lehentasun ordena ahal den guztian errespetatuz. Ordena hori aldatu ahal izango da aparteko eta premia larriko zirkunstantzia objektiboak gertatzen direnean. Edozein kasutan, aparteko eta premia larriko izaerak behar bezala arrazoituta egon behar du eta beren eskubidean aldaketa pairatu dutenei entzun egin beharko zaie.

13. artikulua.

Hileta zibila zein lokaletan edo Udaletxeko zein espaziotan egingo den alkateak edo berak ahalmentutako zinegotziak erabakiko du. Oro har, 2. artikuluan finkatutako bat izango da. Aparteko egoeretan baimena eman ahal izango da beste lokal edo espazio publikoren bat erabiltzeko.

Artículo 8.º

Las solicitudes de realización de funerales u homenajes civiles serán dirigidas a la Alcaldía del Ayuntamiento de Oñati en cualquiera de las formas permitidas por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 9.º

La tramitación de las solicitudes para la realización de funerales u homenajes civiles se regirán por el principio de inmediatez que requieran las circunstancias, siendo remitidas a la persona competente para su resolución.

Artículo 10.º

Las solicitudes deberán contener:

— Nombre, apellidos, domicilio e identificación de la persona que solicita la autorización de la celebración.

— Nombre y apellidos de la persona fallecida.

— Certificado de defunción.

— Día y hora de preferencia para la celebración del funeral civil. El Ayuntamiento atenderá en la medida de lo posible la preferencia en cuanto a fecha y hora solicitadas, atendándose a la orden de presentación de las solicitudes. Dicho orden podrá ser alterado cuando concurren circunstancias o casos extraordinarios, siempre que se motive tal alteración.

— Tiempo estimado de duración del acto.

— Lugar y fecha de solicitud.

— Firma del solicitante y/o acreditación de la autenticidad de su voluntad por cualquier medio.

— Descripción breve del acto y material que se vaya a utilizar (mesas, sillas, megafonía).

Artículo 11.º

En caso de que la solicitud no reúna los requisitos señalados en el artículo anterior, se requerirá al interesado con la mayor urgencia posible para que, con antelación o posteriormente al acto, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos.

CAPITULO V. INSTRUCCIÓN DEL PROCEDIMIENTO

Artículo 12.º

La fecha y hora de la celebración del funeral civil lo fijará el alcalde o Concejales en quien delegue, previo expediente instruido a tal efecto.

La instrucción se efectuará atendiendo al orden de presentación de las solicitudes y respetando en la medida que sea posible el orden de preferencia indicado por cada solicitante. Tal orden podrá verse alterado cuando concurren circunstancias objetivas de extraordinaria y urgente necesidad. En todo caso, la extraordinaria y urgente necesidad deberá estar suficientemente motivada y deberá oírse a quienes han visto alterado su derecho.

Artículo 13.º

El Alcalde o Concejales en quien delegue será quien determine el local o el espacio del Ayuntamiento en el que haya de celebrarse el funeral civil, que con carácter general será uno de los fijados en el artículo 2 En situaciones de naturaleza extraordinaria se podrá autorizar la utilización de otros locales o espacios públicos.

IV KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

14. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

Hildakoei dagokienez, indarrean dagoen araudi sanitarioa aplikatuko da.

Kontserbazio egokia bermatzeko, baimena duen titularrak izango du erantzunkizuna, ekitaldiarengatik udal ondasunetan gertatzen diren kalte et agaleren aurrean.

Familiakoek edo lagunek era berezian apaindu edo egokitu gura dutenean lekua, euren kontura joango da guztia, bai muntatzea eta desmuntatzea, eta lekua utziko dute erabili aurretik zegoen moduan.

Araudi honetan jasota ez datorren guztian, udal arduradunen jarraibideak jarraituko dituzte.

15. artikulua. Borondatezko hizlarien zerrenda.

Legealdi bakoitzaren hasieran Udalak deialdi bat egingo du, gune publikoan egingo diren hileta ospakizunetarako borondatezko hizlarien zerrenda bat osatzeko.

Borondatezko hizlarien zerrenda osatuko ez balitz, Udalak zerbitzua emango du udal korporatiboen bitartez. Edozein kasutan, dagokion korporatiboak espresuki onartu egin beharko du ekitaldian parte hartzea.

Interesdunek eskaeretan azaldu beharko dute hizlaria behar duten edo ez.

Udalak ez du inolako erantzukizunik hartzen edozein egoera dela eta hizlaria egongo ez litzatekeen egoerarik sortuz gero.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Baimena ematen dio Oñatiko Udalak alkateari, behar diren jardunak aurrera eramateko, araudi hau behar bezala bete dadin.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza edo araudi hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du Udalaren udalbatzarrek aldatu edo derogatzea erabaki arte.

CAPÍTULO VI. DERECHOS Y OBLIGACIONES

Artículo 14.º Derechos y obligaciones.

Será obligatorio respetar la normativa de vigente aplicación en materia sanitaria mortuoria.

Con el fin de garantizar la buena conservación, el titular de la autorización será responsable de los daños y perjuicios que se causen a los bienes municipales con motivo de la celebración del acto.

Cuando las y los familiares y/o amistades deseen ornamentar o acondicionar el lugar de forma especial, deberán hacer a su cargo tanto el montaje como el desmontaje, dejando éste en las condiciones anteriores a su utilización.

En todo lo no previsto en esta ordenanza, se deberá seguir las instrucciones de los responsables municipales.

Artículo 15.º Listado de oradores voluntarios.

Cada inicio de legislatura el Ayuntamiento realizará una convocatoria pública, al objeto de disponer de un listado de oradores voluntarios para los actos funerarios en espacios públicos.

En caso de que no hubiera listado de oradores voluntarios el Ayuntamiento de Oñati ofrecerá este servicio mediante sus corporativos. En cualquier caso, el corporativo en cuestión deberá aceptar expresamente la prestación del servicio solicitado.

Las personas interesadas deberán indicar en su solicitud si requieren de orador.

El Ayuntamiento no adquiere ningún tipo de responsabilidad por aquellas situaciones en las que por cualquier causa no se ofreciera la figura del orador.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se autoriza a la Alcaldía del Ayuntamiento de Oñati para la realización de las actuaciones necesarias en orden a la aplicación de la presente ordenanza.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ordenanza entrará en vigor el día siguiente al de la publicación del texto definitivo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el pleno del Ayuntamiento.



OÑATIKO UDALA

Telefonoa: 78 04 11

Fax: 78 30 69

20560 OÑATI

1. ERANSKINA

HILETA EDO OMELADI ZIBILA OSPATZEKO BAIMENA

Eskatzailearen datuak

1. Abizna			2. Abizena			
Izena		Emakumea Gizona		NA		Egoera Zibila
Helbidea (Kalea)		Blokea	Zk.	Oina	Eskua	Atea
Udalerrria		Posta Kodea		Telefonoa		e-posta
Jaiotza data						

2. Helbidea jakinarazpenetarako (eskatzailearen helbidearekiko desberdina izanez gero soilik bete behar da)

Helbidea		Blokea	Zk.	Oina	Eskua	Atea
Udalerrria		Posta Kodea		Telefonoa		e-posta

3. Hildakoaren datuak:

1. Abizena			2. Abizena			
Izena		Emakumea Gizona		NA		Egoera Zibila
Helbidea (Kalea)		Blokea	Zk.	Oina	Eskua	Atea
Udalerrria		Posta Kodea		Telefonoa		e-posta
Jaiotza data			Heriotza data			

4. Hileta zibila egin nahi duten lekua eta ardua:

Gune itxiak:	X batekin jarri nahi dena	Eguna	Ordutegia
1.- Santa Ana antzokia			
2.- Santa Ana kristalez itxitako gunea			
Gune irekiak			
1.- Santa Anako lorategia			
2.- Hilerriaren aurrealdeko parkea			

5. Hileta zibilerako eskatzen duten materiala:

Material zerrenda	X batekin jarri nahi dena
Megafonia ekipoa	
Hilutzarentzako/urna eusteko elementua	
Aulkiak (Zehaztu kopurua)	



OÑATIKO UDALA

Telefonoa: 78 04 11

Fax: 78 30 69

20560 OÑATI

DATUAK EMATEKO BAIMENA (ART.6-5)

1999.eko abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraiki, HONAKO HAU JAKINARAZTEN DIZUGU, alegia, su detektagailua jartzeko eskaeran jasotako datuak zein eskatutakoaren ebazpenerako prozeduratik ondorioztatutakoak datu horien tratamendurako izaera pertsonaleko fitxategi informatizatu batean jasoko direla, bere arduraduna Oñatiko Udala izanik. Ondoren ageri den helbidera jakinarazpen bat bidaliz, zure datu pertsonalak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubidea duzu:

NIRE BAIMENA EMATEN DUT aurreko paragrafoan aipatzen duen izaera pertsonaleko fitxategi informatizatuan jasotzen diren datuak estatistikak egiteko eta Gizarte Zerbitzuetako Udal Sailari dagozkion eta eskaera honi lotuta dagoen arauditik eta harekin bat datorren legeriatik ondorioztatutako eginkizunak gauzatzeko erabil daitezzen.

Era berean, NIRE BAIMENA EMATEN DUT eskaera honetan eta erantsitako dokumentazioan jasotako datuak su detektagailuak jartzeko zerbitzuaren entitate esleipendunari emateko, eskaera honekin lotuta dagoen arauditik eta harekin bat datorren legeriatik.

Era berean, ONARTZEN DUT Oñatiko Udalak onartutako arautegi honen Jakinarazpenaren berri eman didala eta arautegi honen baldintzak, eskubideak eta betebeharrei butuzko 4, 5 eta 6. artikulua ONARTZEN ditudala

BAI		
EZ		

(Hori guztia 1999.eko abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedetatutakoari jarraiki)

Oñatin, 200 ko ren (e)an

Tokia, data eta eskatzailearen edota ordezkariaren sinadura



OÑATIKO UDALA

Telefona: 78 04 11

Fax: 78 30 69

20560 OÑATI

ANEXO 1

SOLICITUD PARA LA CELEBRACIÓN DE FUNERAL O DESPEDIDA CIVIL

1 Datos de la persona solicitante

Apellido 1		Apellido 2				
Nombre	Mujer hombre	D.N.I.			Estado Civil	
Dirección (Calle)		Bloque	Nº	Piso	Mano	Puerta
Municipio	Código Postal		Teléfono		e-mail	
Fecha Nacimiento						

2. Domicilio a efectos de notificación(cumplimentar sólo en el caso de que sea diferente al domicilio de la persona solicitante)

Dirección		Bloque	Nº	Piso	Mano	Puerta
Municipio	Código Postal		Teléfono		e-mail	

3. Datos del fallecido:

1. Apellido		2. Apellido				
Nombre	Mujer/ Hombre	DNI			Estado Civil	
Domicilio (Calle)		Bloque	Nº.	Piso	Mano	Puerta
Municipio	Codigo Postal		Telefono		e-mail	
Fecha de nacimiento		Fecha de fallecimiento				

4. Lugar y hora en la que se quiere celebrar el funeral civil

Espacios cerrados:	Marcar con una X el que se solicite	Día	Hora
1.- Santa Ana antzokia			
2.- Zona acristalada de Santa Ana			
Espacios abiertos			
1.- Jardín de Santa Anako lorategia			
2.- Parque sito frente al Cementerio			

5. Material que se solicita para el funeral civil

Lista de material	Marcar con una X lo que se solicite
Equipo de megafonia	
Elemento de soporte para el feretro/ urna	
Sillas (Concretar la cantidad)	



OÑATIKO UDALA

Telefona: 78 04 11

Fax: 78 30 69

20560 OÑATI

AUTORIZACIÓN DE CESIÓN DE DATOS (ART.6-5)

INFORMADO/A, según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, que los datos recogidos en la solicitud del Servicio de Detección de fuego en el domicilio así como los que se deriven del procedimiento para la resolución de lo solicitado se integrarán en un fichero informatizado de carácter personal para el tratamiento de dichos datos, cuyo responsable es el Ayuntamiento de Oñati, teniendo el derecho al acceso, rectificación, cancelación y oposición de sus datos personales dirigiendo una comunicación a la siguiente dirección...

DOY MI CONSENTIMIENTO para que los datos que se integren en el fichero informatizado de carácter personal al que se refiere el párrafo anterior se utilicen para la producción de estadísticas y para el ejercicio de las funciones propias del Departamento municipal de Servicios Sociales, derivadas de la normativa reguladora y legislación concordante relacionadas con la presente solicitud.

Así mismo DOY MI CONSENTIMIENTO para que los datos aquí reflejados en esta solicitud y en la documentación adjunta puedan ser cedidos a la entidad adjudicataria de la instalación de los equipos de detección de fuego para el ejercicio de las funciones derivadas de la normativa reguladora y la legislación concordante relacionadas con la presente solicitud.

También ADMITO haber sido informado de la normativa aprobada por el Ayuntamiento de Oñati y ACEPTO los artículos 4, 5 y 6 de la referida normativa sobre requisitos, derechos y obligaciones.

SÍ	<input type="checkbox"/>	
	<input type="checkbox"/>	
NO	<input type="checkbox"/>	

(Todo ello de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.)

En Oñati a de de 20

Firma de la persona Firma de la persona solicitante representante

Lugar, fecha y firma de la persona solicitante o de la persona